

Munduko izotzak urtuko balira Baiona, Donostia eta Bilbo urpean lirатеke

*National Geographic*ek mapa bitxia atundu du. Munduko izotz guztia urtu dela erabaki du eta kontinentez kontinente erakutsi du nola itsasoak gaina hartu digun. Itsasoaren maila 66 metro igoko bada, atera kontuak.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

EZ ZAIGU BIHAR ETORRIKO itsasoa, izotz koskorrek urtzeko denbora behar dute, *National Geographic*en kalkuluen arabera, 5.000 urte. Alabaina, atmosferara etengabe CO₂ jaurtitzen segitzen badugu izotzik gabeko planeta aurki izango dugu. Eguratsa jasanezina izango litzateke, 26 gradu zentigradutik gorako batez bestekoa izango genuke, oraingo 14 graduekin alderatuta.

66 metro egiten badu gora itsasoaren mailak Londres eta Venezia urpean geratuko dira, Herbehereak osorik desagertuko dira, eta Danimarka ia osoa ere bai. Asian 600 milioi txinatar bizi diren lurak ur azpian geratuko dira eta Bangladesh osorik galduko da. Mapa arretaz begiratzuz gero irakurlea konturatuko da gure kostaldea ez dela izango lur gehien galduko duena.

Baina ez lasaitu gehiegi, Zarauzko malekoia baino pixka bat gehixeago urperatuko litzateke. ■



National Geographic-ek kontinentez kontinente erakutsi du itsasoaren mailaren igogarak ekarriko duen hondoratzea (urdin argiz, urpean geratuko diren eremuak).

Independentzia eskura

Ikusi, bizi eta partekatu

www.hamaika.tv